

BAKE JOKOA

JOKOAREN MATERIALA

- Dado bat
- Paper hostoak
- Aixtur pare bat
- Kolore arkatzak
- Erretilu bat elementu hauek barnean hartuko dituen : joko-araudia, 6 pikatzeko paper-zerrenda, (ikus beherago zirimarrakia), ekipo bakoitzak bat ukaiteko gisan.
- Jokoaren araudiak.

Jokalari kopurua : ekipo bakoitzean bi jokalaritik bost arte.

Jokoaren iraupena : 10 minuta jokoaren azaltzeko eta lekuan emaitako. Alabaina behar dira tantoak pikatu eta ekipoak moldatu.

Jokoaren beraren iraupena : 35 minuta.

15 minuta jokoaren ondotik egingen den elkarriketarentzat.

Jokoaren araudiak

Jokoaren apailua hurrekin

Haurrak ekipotan ezarri (2tik 5arte ekipo bakoitzean)

Jokalariak erretiluaren inguruan jartzen dira, elgarren ondoan.

Tantoak pikatu eta jokalarien artean banatu.

Ekipo bakoitzak dadoa botatzen du, zifrarik apalena ateratzen duenak irekitzen du jokia.

Jokoaren iragaipena

Lehenik dadoa botatzen duenak tantoa aitzinarazten du, dadoak erakutsi zenbakiaren arabera laukiak pasatuz. Ezkerreko partean agertzen diren laukietara heltzearekin tantoa, laukian idatzia dena bete behar da. Ekipo guzietan gauza bera egiten dute bata bestearen ondotik.

1 lauki baikorrek fiteago joanarazten du.

2 adiskidetasun-laukiak jokalariai parada emaiten dio gisakotasun-jestu bat beste jokalaria bati egiteko.

3 lauki ezkorrek gibelerak joanarazten du.

4 Joker-bihotzak lauki ezkorren efektua kentzen du.

Beherago izendatuak diren laukietan jokalaria ez dira mugitzen :

5 info-laukiak xehetasun bat ekartzen du

6 Ekin-laukiak ekinbide bat proposatzen du, burua edo eskuentzat.

7 izan lekuko laukian ekipoko kideek beren artean, zer ihardetsiko duten erabaki behar dute. Eta ihardespene hori beste jokalariei egokia iduritzen baldin ba zaie, ihardesleek joker bat ukaiten dute.

8 Egin antzerkia-laukian, ekipoko bakoitzak rola bat egiten du. Beste ekipoetakoak gonbitatzen ahal dituzte taula gainean parte hartzera. Abiatua den ezenaren segida elgarrekin asmatzen dute eta aterabide bat aurkitzen. Beste jokalariek ezena ona kausitu baldin ba dute antzerkilari ekipoak joker-bihotz bat ukan dezake.

Jokoaren bururapena

Jokia gelditzen da ekipo bat helmugako laukira heltzen delarik. Irabazleek besteak gonbitatzen dituzte hurbiltzera. Haurrak prest dira orain bakearen festibal bat antolatzeko.

BAKE JOKOA ondotik

ELKARRIZKETALDIA

Elkarrizketaldiaren helburua jokoaz hitz egitea da. Jokalari bakoitzak nola sentitu dituen jarrerak jestuak eta hitzak.

Zertan den joko hau antzara-joko klasikotik desberdina ? noiz den desberdintzen ? Lauki batzuk gehiago gustatu zaizkion jokalariai, aldiz beste batzuk gutxiago, zergatik ? Errex ote da elkarrekin ekipoan aritzea ? Jokalariak elkar entzun dutea ? Denak mintzatu direa ? Izan direa kalapitak jokalarien artean, trufak, elkarren artean berotu direa ? Zer egin dute egoera lasaitzeko ? Jokalari bakoitzak bere buruaz zer ikasi duen, eta bestetaz ere zer ikasi duen ?

JOKOA BURURATU ONDOAN

Jokoa abiapuntu interesgarri bat izan daiteke elkartasun-ekintza bat gauzatzeko.

Horrela, segida bat asmatzen ahal da haurrak gehienik markatu dituenari. Erakusketa bat ? bake-festibal bat ?

Ahal da ere joko hori proposatu ondoko "igandea bestela" egunaren kari. Horrela burrasoek, auzoek eta adiskideek jokoa parte hartzen ahalko dute, denak erretiluaren inguruan.

Ekintza horiek parte hartuko dute proiektu baten sostengu ekonomikoan.